

BOROBIL TEATROAK
AURKEZTEN DU

JOKOZ KANPO



JOSEBA APADLAZA

ASIER SOTA

ASIER HORMAZA

ZUZENDARIA
ANARTZ ZUAZUA

JOKOZ KANPO

Manuk eta Martinek futbol talde banaren ardura dute. Mutil kozkorrak entrenatzen dituzte, kirol miresgarri honek dituen balore guztiak eransteko asmotan.

Manuk eta Martinek aspalditik ezagutzen dute elkar. Manuk eta Martinek finala dute begien bistan. Eta finala irabazi egin nahi dute. Garaipena dute nor direla frogatzeko modu bakarra, bizitzan ez daudela jokoz kanpo erakusteko aukera bakarra.





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Borobil Teatroa

<https://www.borobilteatroa.com/>

JOKOZ KANPO

Mikel Pagadizabal

Nagore Aranburu

Anartz Zuazua

DJ Epaiketa. Argia egingo da eta epailearen idazkaria ikusiko dugu.

IDAZKARIA

Akusatuen aulkian, Manuel Garagorri Irisarri jauna, adinez nagusia, kondenaarako aurrekaririk gabea, gertakarien egunean Los angeles ikastetxeko infantilen futbol taldeko entrenatzaile, eta Martin Amiano Gorosabel jauna, adinez nagusia, kondenaarako aurrekaririk gabea, gertakarien egunean Mendia ikastetxeko infantilen futbol taldeko entrenatzaile.

Gertakariak: 2014ko ekainaren 22an, igandea, bi akusatuak eztabaida sutsuan murgildu ziren, lekuko guztien arabera, elkar irainduz, parean jarritako guztiarekin borrokan amaitu arte. Ertzaintzaren presentzia derrigorrezkoa izan zen gertakariak gehiagora egin ez zezan.

Epaile ikustezinak Manuri altxatzeko eskatuko dio. Manu altxatuko da.

MANU

Bai, ni naiz Manuel Garagorri. Baina denek Manu deitzen didate...**zera** da, nola esaten da, sinonimoa, hau da desberdiña da baina ez da berdin, ulertzen?... Zein Martin? Bai, laspaldi ezagutzen dut...gaztetan kuadrilakoak ginen... eta azken urte honetan berriz topatu dugu elkar umeak entrenatzen. Egia da, bai, dena finala baino astebete lehenago hasi zen...Iker, nere taldeko jokalaria onena lesionatu zen egunean

DJ Musika eta errekreoa. Ume-iskanbila. Eeeeeoo entzungo da eta hiru aktoreak agertuko dira: IKER (Joseba) eta JONKARLA (Sota) "oro-platara" aukeraketa aurreko pausoak eginez. MIKEL (Hormaza) tartean.

Aukeratzailleentzat ikustezinena izango da.

IKER

ORO

JONKARLA

PLATA

IKER

ORO

JONKARLA

PLATA

IKER

ORO

JONKARLA

PLATA

MIKELI baloiak aldegingo dio. Atzetik joango da.

IKER

ORO

JONKARLA

PLATA

JONKARLAK hanka piskat zeharka jarri eta turnoa irabaziko du. Jokalari aukeraketan hasiko dira.

JONKARLA

Oro! Oro! Ni hasiko naiz! Lerelele! Ehhh... XABI.

IKER

Joe! Nik aukeratu behar nuen Xabi! Ehhh IMAGOL.

MIKEL tartean sartuko da besteak beregan fija daitezen.

JONKARLA

Eeehhh...AITZOL.

IKER

Mmmmm...eeeh...GARIKOITZ.

MIKELeK señaakeak egingo ditu, besteek ez diote kasurik egiten.

JONKARLA

Mmm... XABAT

MIKEL

Ni,ni,ni,ni,ni,ni

IKER

Eeeeh...UNAI.

MIKEL (*eskua altxatuaz*)

Ni,ni,ni,ni,ni,ni,ni,ni,ni,ni,ni,ni,ni...

JONKARLA

Mmm...JOSE OSVALDO.

MIKEL

Jose Osvaldo? Beti Real Madrideo kamisetarekin etortzen da-ta!

JONKARLA

Bai, baina kamiseta Ilarramendirena da.

IKER

Mmmm (*aukeraketa zaila, kanpora begiratzen du eta Mikeli, Mikel eskua altxata*) mmmm ALAZNE.

MIKEL

Jo! Alazne neska da!

IKER

Zuk baino hobeto defenditzen du.

JONKARLA

Ehhhm...eeehmmm...ehhhmmmmm...

MIKEL

Ez dago besterik! Ez dago besterik! Udalekutan esan zenidan zure laguna nintzela.

JONKARLA

Bai, baina Manu entrenatzaileak esaten digu futbolean ez dagoela lagunik.

MIKEL

Baina jolasgaraian gaude!!

JONKARLA

Eta zer?

MIKEL

Emaitza berdin duela. Benga mesedez, mese, mese...

JONKARLA

Bale, baina portero. Pares edo nones?

IKER

Nones.

JONKARLA

Guk ateratzen dugu. Jose Osbaldo! Atera!

Partidua hasiko da.

MIKEL

Jonkar, Jose Osbaldori katekesian esan diotena sinisten duzu?

JONKARLA

Zer?

MIKEL

Jainkoa leku guztitan dagoela.

JONKARLA

Nola egongo da jainkoa leku guztitan. Jainkoa Barçan dago.

Momentu batean Iker lesionatu egingo da. JONKARLA eta MIKEL

IKERrengana hurbilduko dira. IKER minez sofritzen.

JONKARLA

Halaaaaa, patata bat ematen du!

MIKEL

Haalaaaa!!! Minik bai? (*ikutuko dio*)

IKER

Aaaaaaaaaaarghhhhh!!! Ez ikutu jode.

BIAK

Goazen andereñoarengana.

MIKEL

Joe, ze zorte txarra.

DJ Gimnasioa. Ruben eta Alfon pesak egiten. Manu, beste makinan. Esfortzu soinuak. Zeinek egin haundiagoak. Alfonek ederki egingo ditu pesak

MANU

Xiu, xiu, xiu, xiu....

Rubenek bere sorbalda ukitzen hasiko da.

ERRUBEN

Ostia! Sorbalda...

ALFON

Zer? Mina?

ERRUBEN

Bai. Hemen.

Manu, beregana doa.

MANU

Ea, utzi niri.

Sorbalda ikutuko dio.

ERRUBEN

Aaaah! Kontuz, kontuz!!

MANU

Lasai, utzi ikusten. Ibiliko zinen jotake.

ERRUBEN

Eskubiarekin aritzen naiz.

MANU

Aber! Utzi ikusten

ERRUBEN

Ikusi hortik. Ikusteko ez daukazu ukitu beharrik.

Manuk, berriro ere ukitu egingo du.

ERRUBEN

Aaaaah, ez ukitzeko!

MANU

Lasai, zerbaitetaz baldin badakit, giharrez da.

Manuk sorbalda hartuko dio taxistari.



MANU

Non duzu mina, hemen?

ERRUBEN

Ez. Hareago.

MANU

Hemen.

ERRUBEN

Aaaaaah, baii.

MANU

Uuuuh...

ERRUBEN

Zer da?

MANU

Ideiarik ez. Utzi probatzen.

ALFON

Karo, karo, karo... Ezin dana da, bizona osoa kirolik egin gabe pasatu eta gero 40rekin triatloia prestatu.

ERRUBEN

E, ni ondo nago, e? Erretzeari utzi diot, eta edan ere gutxiago edaten dut.

Manuk taxistari besoa luzatuko dio eskua aurpegian jarriaz.

ALFON

Bai, ondo, ondo baina... *(Txortan egiteko keinua egingo du)* batere ez. Ta horrek karga muskularra sortzen du.

ERRUBEN

Ba, oker zaude. Inoiz baino gehio!

ALFON

Ordainduta, nik ere bai.

ERRUBEN

Ze ordaindu eta ze krixto! Sare sozialetan ibiltzen hasi naiz, nire argazkia jarri, eta nirekin saltsa izan nahi duen neska batek toke bat ematen dit.

DJ Tarzán. Telefonora mezu bat iritsiko zaio.

ERRUBEN

Begira! Nirekin nahi duen norbait!

ALFON

Bai, horixe! Taxia behar duenen bat!

ERRUBEN

Eeez, ba!! Hara...abrir mensaje...Neska bat... Jocelyn!

ALFON

Zer da? Matxupitxua?

ERRUBEN

Zer esan dizuet? Nire argazkia ikusi du eta seko flipatua geratu da!

ALFON

Baina nor da hau? Harry Potter?

MANU

Erakutsi. Baina zein kristo da?

ERRUBEN

Zein izango da ba? Ni.

ALFON

Zu? Jo,jo,jo baina noizko argazia jarri duzu???

MANU

Argazki honetan barrabiletan ilerik ez zenuen!

ERRUBEN

Ixo biok! Aizu, zuk ez al zenuen orain lanean behar?

MANU

Gaur jai eskatu dut. Igandean final haundia dugu eta futbol final batek konzentrazio haundia eskatzen du. Ni naiz hurren gidaria! Nik erakutsi behar diet garaipenaren bidea.

ALFON

Menotti, Sir Alex Ferguson, Guardiola, eta orain Manu. Futbolaren gurú berria. Harrapazak.

DANI

Zuk zer jakingo duzu!

ALFON

Nik? Nik dena dakit. Galdetu nahi duzuna.

DANI

Ea, nork asmatu zuen penizilina?

ALFON

Baina ze galdera da hori? Horrela nola ligatuko duzu?!! Galdetu zerbait interesgarria.

MANU

Utzi Neri. Atletikeko ekipo mitikoa

ALFON

Bua, erraza. Lezama, Canito, Etxenaga, Manolin, Nando, Iriondo, Venancio, Arrieta, Zarra, Panizo eta Piru Gainza. Galdetu zerbait zailagoa, jode.

DANI

Mmmm aber...92ko txanpionsa irabazi zuen Bartzelonaren alineazioa.

ALFON

Ixo Manu. Aber: Zubi, Ferrer, Koeman, Nando, Eusebio, Guardiola, Bakero, Laudrup, Juan Carlos, Julio Salinas eta Stoichkov.

MANU

Aldaketak?

ALFON

Andoni Goikoetxea eta Alexanko. Ronald Koemanen gola 111 garren minutuan.

MANU

Harrigarria.

ALFON

Gaur egun futbolaz jakin gabe ez zoaz inora.

DJ Mensaje. Telefonoko mezu bat entzungo dugu.

ERRUBEN

Hara! Mezua. *(hirurak hurbilduko dira)* Ei, mutilak: Jocelynek baietz. Nirekin gelditu nahi duela!!

Conga bat egingo dute. DJ TELEFONO baten DEI HOTSA ENTZUNGO DA.

MANU

(telefono txiki bat aterako du) Hola maja Zer? (...) barkatu majo Nola? NO ME JODAS!!!! (...) Baina ondo dago ez? Ezin dela tentetu? Tentetu ez, tontotu bai ordea (...) Mekauen la madre...Zenbat aldiz esan behar zaie ume alu hauei partiduak baino lehen txorakeririk ez egiteko, HOSTIAS!!!

ALFON

Ze gertatu da?

MANU *(lagunei)*

Lesionatu egin dela, Iker!

ERRUBEN

Casillas?

MANU

Ez gizona, Iker, nere ekipokoa!! Bederatzia!!! Golak sartzen ditun bakarra, joder!! DIOS!!!!

ERRUBEN

Bueno, ni ere banoa. Jocelynekin gelditzeko, dotore jantzi behar naiz.

ALFON

E, gogoratu, bandera beti altxata.

MANU

(*telefonotik*)ba izotza jarri, () ba nik zer dakit, erosi gintonk bat Bai, bai oraintxe noa. Bakarrik dago? A, bere aitarekin doa. Bale, bale, ba gero pasako naiz. Joder, joder, joder...

Badoa korrika MANU. DJ Hospital

Iker, hanka minduta, eta bere aita pasilotik konsultara datoz. Aita telefonoz hizketan.

AITA

Pues lo que te decía, que el chaval que se ha hecho un esguince y tiene la final el domingo... Pues ¡como voy a estar...hasta los mismísimos!.. Esto es inaceptable! Nos han tenido esperando...media...y ahora nos han llamado... Bueno te dejo, que entramos...

Telefonoa kolgatuko du eta medikuarekin hitz egiten hasiko da.

AITA

Hola, buenas tardes. ¿Qué, con mucho trabajo, no?

MEDIKUA

Kaixo, arratsaldeon. Bai lan asko bai.

AITA

Aiba! Mediku euskalduna.

MEDIKUA

Bai, euskalduna naiz, bai.

AITA

Euskaldun berria ala zaharra?

MEDIKUA

Euskalduna. Eseri hemen, mesedez. Zer gertatu da?

AITA

Ba, ordu erdiz egon garela zai. Eta txorkatila hau urjentzia bat dela!!

MEDIKUA

Ikerri galdetu diot. (haurrari) Iker duzu izena, ezta?

Pausa

AITA

Erantzun!

IKER

Bai.

MEDIKUA

Nola hartu duzu mina?

IKER

Ba...

AITA

Futbolean. Portzierto, lesionatu zaituenari itzuliko zenion bueltan zartakoa, ezta?

IKER

Bakarrik egin dut.

AITA

Bakarrik? Zu tontoa al zara? Finala baino lehen futbolari onek ez dute ezer egiten. Fijatu Messik! Finala bezperatan hantxe ibiltzen da zelaian, baloirik ukitu gabe, paseatzen...

IKER

Joe, aita!

AITA

Ez aita ta ez aito!! Igandean finala jokatu behar duzu, bai ala bai, "ojeadoreak" etortzen dira final horietara. Ez baduzu jokutzen, ez zaituzte ikusiko eta talde haundiren batek fitxatzeko aukera galduko dugu.

MEDIKUA

Dugu?

AITA

Nere semea, OSO ONA da. Izugarrizko ahalmena du futbolerako. Kapitain jokutzen du, bista ona, azkartasuna, valors, fair play, hau da, crack bat. Nabari zaio, ezta????

MEDIKUA

Nik ume bat besterik ez dut ikusten. Utzi begiratzen, mesedez. Hemen mina, Iker?

AITA

Bai.



MEDIKUA

Hemen, minik egiten?

AITA

Hor gutxiago, ezta? Larria al da? Igandean jokatu egin behar du, bai ala bai.

MEDIKUA

Bueno, ez daukazu ezer hautsita, handitua besterik ez. Pomada bat emango dizut. Bendarik ez duzu behar.

AITA

Pomada, oso ondo.

MEDIKUA

Hiru astetan erabateko atsedena egin eta listo, sendatuta!

AITA

Hori zer da, entrenamendu flojoagoa...?

MEDIKUA

Hiru astetan REPOSO TOTAL

AITA

Nola reposo?????? Igandean finala jokatu behar du Ikerrek.

MEDIKUA

Aizu, gauza bat: ez dakit ba ote dakizun edo konturatu ote zaren baina hemen medikua ni naiz

AITA

Eta Ikerren aita, ni, eta nik esaten dizut finala jokatu egingo duela.

MEDIKUA

Baina ikusi al duzu? Txonkatila zure burua baino puztuago dago! Ezinezkoa da haurrak egoera hontan partidua jokatzea.

AITA

Jokatu egin behar du! Ezin al diozu zerbait infiltratu?

MEDIKUA

Ez.

AITA

Fajaren bat-edo jarri igandean jokatzeko!

MEDIKUA

Ez.

AITA

Baina zu ze mediku klase zara? Hortarako ordaintzen al ditut nik zergak? Nire semea ez sendatzeko?

MEDIKUA

La madre de dios.

AITA

Errazena hori da: hiru astez ez mugitzeko esan eta lasai gelditu, reposo, reposo, mis cojones... zuk ze fakultatetan ikasi duzu?

MEDIKUA

Ea, gauza bat esango dizut argi: zure semeak hiru aste behar ditu osatzeko. Pomada eman eta punto. Ez dago beste misteriorik. Animo, Iker! Ondo jarriko zara hiru astez atsedeen egin ezkerro!

IKER

Eskerrik asko.

AITA

Eskerrik asko? Zu tontoa zea! (*medikuari*) Begira matasanos! Nik ere argi esango dizut: nire semeak igandeko finala jokatu egingo du, bai ala bai! Ulertzen?

DJ Epaiketa. Buelta epaitegira.

AITA

Eta zer egin behar nuen? Ixilik gelditu! Nik nire zergak beti egunean ordaitzen ditut, txintxo txintxo protestarik egin gabe. Eta zertarako? gero arazo bat duzunean ez dute ezer konpontzen funtzionario alu hoiek! (...) Ez, funtzionario denak ez zarete horrelakoak baina batzuk bai. (...) Biolento? Ni?! Et, et, et, hori bai ezetz. Orain ezingo dugu protesta ere egin injustizien aurrean! *DJ (telefonoak joko dio)* Ez nintzen ni izan partiduko egunean biolento jarri zena! Nik nire semearentzako onena besterik ez nuen nahi, hoixe!! Que?? (...) Si ya te he dicho, en el juzgado!! No, esto va para largo. (...) no puedo hablar, luego te llamo. (*eskegiko du*) Eseri? Baina oraindik ez dut kontatu istorio guztia? (...) Bai. Bale. Itxarongo dut. (*badoala ahopean*) Funtzionarioekin beti berdin, “espere su turno” ta gaueko hamarrak arte hementxe. Joer...

Aita atzera joango da eta Martin hurbilduko da epailearengana

MARTIN

Martin Amiano. Mendia ikastolako taldearen entrenatzailea. Bai. Manuk esan duena egia da. Aspalditik ezagutzen dugu elkar. Ez, lagunak ez, - ezagunak. Garai batean bai, kuadrilakoak ginen. Baina Manurekin ez naiz sekula fidatu. Zerbait jokoan badago ez du sekula zalantzarik egiten. Nahiago irabazi aldamenekoa zapaldu behar badu ere... Ez, partidua baino lehen ikusi ginen. Nere lanera azaldu zen... arte ederren museoan... ze egun?... Asteazkena izango zen...bai asteazkena esgintzearen hurrengo eguna...

DJ Musika.MARTIN museoko aulkian eserita egongo da. Isiltasuna. Erlojua begiratuko du. Atzean figurak, koadroak eta behar dena.

MARTIN

Ordu erdi eta etxera. Animo.

Lasai egongo da.

MARTIN

Egun osoan inor ez. Hauxe da museo batean lan egitearen abantaila. Estrés gutxi.

Altxako da paseotxo bat ematera.

MARTIN

Gero kultura garrantzitsua dela esango dute. Begira pertsonai guzti hauek...Historia egin zuten eta ez ditu inork ezagutzen. Napoleon, inork ez daki nor den...Aldiz Guardiola eta Ancelotti...denak ezagutzen dituzte. Eta zergatik? Final bat irabazi dutelako. Ezaguna izateko final bat irabazi behar duzu. Eta nik ez dut bat bera ere irabazi. Galtzaile garenok ez gaitu inork ezagutzen.

Manu sartuko da.

MANU

Martin, Martin!

MARTIN

Aiba dios! Zer ikusten dute nire begiek! Manu Garagorri museo batetan!!!!

MANU

Joder. Hamabi euro kobratu nahi zizkidaten museoan sartzeko!

MARTIN

Museotan sarrera ordaindu egin behar da.

MANU

Faborez, hamabi euro poster batzuk ikusteko?

MARTIN

Oleoak dira

MANU

Berdin da. Hamabi eurogatik bi gintonik dauzkat

MARTIN

Zertara etorri zara?

MANU

Arazotxo bat daukat. Nire taldeko jokalaririk one... jokalaria bat, lesionatu egin da.

MARTIN

Eta? larria da? Ze gertatu zaio?

MANU

Esginze bat. Hiru astez ezin izango du jolastu.

MARTIN

Gizajoa.

MANU

Gizajoa baino aldrebesa esango nuke. Zeini okurritzen zaio final aurretik eskolako atarian jolasean ibiltzea??!

MARTIN (*ironiko*)

Egia. 11 urteko mutiko hauek ez daukate bururik gaur egun.

MANU

Hoixe. Ikusten? Entrenatzaile batek bakarrik ulertzen ditu beste entrenatzaile baten buruhaustea. Martin Iganeko finala atzeratu egin behar dugu.

MARTIN

E? Nondik atera duzu hori? Jokalari bat lesionatzen denean, ordezeko batek jokatzen du eta punto pelota.

MANU

Hostias, Martin! (*diximulatzen*) Ez zaitetz hain zorrotza izan. Ez badu jokatzen mutikoak pena haundia hartuko du eta horrek trauma bat sortu diezaioke.

MARTIN

Eta ez da izango... ez dakit e... arriskatzera noa hipotesiarekin... lesionatu den mutiko hori oso ona dela eta bera gabe finala kolokan ikusten duzula?

MANU

Bai ze! Joder, Martin, nola pentsa zenezake hori nitaz?

MARTIN

Ba, txikitatik ezagutzen zaitudalako.

MANU

Martin nik beti zintzo jokatu dut zurekin.

MARTIN

Bai? Mutiko haren fitxa falsifikatu zenuenean adibidez?

MANU

Perutik etorritakoa zen! Txiki txikia. Nik zer nekien.

MARTIN

15 urte zituen.

MANU

Eta zu duela bi urte, arbitroa eta bere emaztea landetxe batera gonbidatu zenituenean, zer?

MARTIN

Zer, bere urtebetetzea zen.

MANU

Ez zenituen ezagutzen eta!!

MARTIN

Eta zu? Dutxetako ur beroa moztu zenuenan? Nere taldeko ume guztiak gripea hartu zuten.

MANU

Nik ez nuen ezer moztu! Bonbona bukatu zen. Gainera kontu zaharrak dira horiek...pertsonek aldatu egiten gara.

MARTIN

Zu ez.

MANU

Finala atzeratzen laguntzen badidazu mariskada nere kontu.

MARTIN

Ikusten? Mariskoari alergia diot.

MANU

Ba lau bogabante oparituko dizkizut.

MARTIN

Bogabantea ere mariskoa da.

MANU

Bueno, Martin, haurren arteko partidu xixtrin bat besterik ez da-eta!

MARTIN

Haurren partidu xixtrin bat?

MANU

Bai, hauren arteko partidu xixtrin bat.



MARTIN

Ba, partidu xixtrin bat bada, joka dezagun.

MANU

Hori da zure azken hitza?

MARTIN

Ez. Atea hor dago.

Martinek desafioa bota dio Manuri. Honek, zorrotz begiratu ondoren arerioari, eutsi egingo dio desafioari.

MANU

Oso ondo. Ederki damutuko zaizu.

Badoa Manu.

MARTIN

Uaaaaaaaa!!! Oraingoan bai! Oraingoan finala irabazi eta Martin pasako da historiara!! Egin lekua Zumalakarregi!!!

Museoko langile bat sartuko da eta Martinen dantzak ikusiko ditu

PURI

Martin, ikastolakoek deitu dute ez datozela. Itxi egingo dugu.

DJ Apagón. Automatikoak salto. Martin eta bere 2 lagunak, Jose eta Dani etxean.

DANI

Baina, zer egin duzu Martin?

Martin sartuko da

MARTIN

Ez dakit, zerbait gaizki. Jose, igo automatikoa.

JOSE

Egidazu kaso: nik antzeko lanpara bat montatu dut etxean eta egin beharreko lehenengo gauza da A, Bn sartu

Martinek pieza bat hartuko du.

DANI

H, Gn. Hori jartzen du instrukzioetan.

JOSE

H, Gn ez A, Bn sartu.

MARTIN

ijlililik egongo zarete eta destorniladorea pasako didazue behingoz!!

JOSE

Jakin daiteke zer pasatzen zaizun? Ez dut ezer ulertzen.

DANI

Ba lau aldiz esplikatu du ba motel, ez da hain zaila. Manu Garagorri joan zaiola museora, akordatzen? Eskolako Manu. Manu txangurro croissant Manu. Manu...

Josek parrez hasiko da. Asko erretzen ari den prorroaren eraginez.

JOSE

Bai, eta?

MARTIN

Nola eta?! Joder, hau ez da hola! Zer jartzen du intrukzioetan?

DANI

H, Gn sartu.

JOSE

H, gn ez. Egidazu kasu. A, Bn sartu.

MARTIN

Zuek eztakizue besteik esaten??! Pili lanetik etorri eta lanpara montatu gabe badago gozoa jarriko da!!!

JOSE

Jesus, gizona, genio txarra dauka baina ez da munstro bat! Nola haserretuko da ikeako lanpararengatik.

MARTIN

Bi urte daramadalako montatuko diodala esaten, eta gaur montatuko dut!!

DANI

Martin, jakin al daiteke zer gertatzen zaizun?

MARTIN

Esan dizuet Manuri jokalaria onena lesionatu zaiola. Eta finala atzeratzeko eskatu didala.

DANI

Bai, eta ezetz esan diozula. Hamar bat aldiz esan diguzu telefonoz ohiuka eta dantzan, bai.

MARTIN

Etzen gutxioagorako!

JOSE

Ez. Hori ere egia da...

MARTIN

Behingoagatik nik finala irabazi nezaken!!! Behin bada ere gailurra zer den jakin!! Eta Manuk lokatza jango luke gainera!! Ni goian eta Manu hondoratuta!!!! Ez zegoen ni baino gizon zoriontsuagorik munduan finala zein egunetan den gogoratu naizen arte!!

DANI

Museoko ate irekien eguna??

JOSE

Jode, ez esan amaren eguna dela. Ez diot ezer erosi...beno oraindik garaiz nabil.

MARTIN

Ez. Pili eta bion ezkontza urteurrena.

BIAK

Hostias.

DANI

Eta esan diozu ez zarela joango?

MARTIN

Esan banio lanpara montatzen ariko nitzela uste dezu??

DANI

Ba barrabilak moztea nahi ez baduzu, hobe duzu ez esan, eta finala atzeratu.

Josek lehioa irekiko du. DJ Lehioa ireki

JOSE

Martin, hori ez al da Piliren kotxea?

Martin lehiora doa

MARTIN

Hori fruteroaren kotxea da. Ez al duzu ikusten "Frutas Benancio" jartzen duela.

Martin lanpara montatzera doa eta Josek lehioa itxiko du.

DJ Lehioa itxi

DANI

Eta hori?

Danik, beste lehioa irekiko du. DJ Lehioa ireki

MARTIN

Zein?

DANI

Hori. Tipo hori, txakurrak kaka egin eta hortxe utzi du lasai asko.

Zerria!!!!

MARTIN

Llevate el postre a casa!!!

Biak Martinengana dihoaz baina lehioaren beste aldetik zerbait entzuterakoan lehiorantz zuzenduko dira.

BIAK

Tu puta madre!

MARTIN

Konzentratu eta lagundu, mesedez!

Danik lehioa itxiko du. DJ Lehioa itxi

DANI (instrukzioak irakurtzen)

Bai, bai. Aber H, Gn sartu

Martinek instrukzioak kenduko dizkio.

MARTIN

Hori ez!! Pilirekin!! Esango diot edo ez??

Bi lagunek batera erantzungo diote.

JOSE

Bai!

DANI

Ez!

MARTIN

La madre que os pario!

DJ Apagon

MARTIN

Eta zer egin behar dut orain?

JOSE

A-Bn sartu.

DJ Tormenta. Funde a DJ Entrenamiento. Futbol zelaia. Manu umeak entrenatzen. Silbato.

MANU

Ume aluak!!!! Kontu marrarekin, jokoz kapo zaudete denak. Zaindu lerroa!. Begiratu atzean Manex, edo Amets edo Xanet, nola arraio izena du ume horrek?

AITONA

Urko. Laua Urko da.

MANU

Hori, Urko. Urko, fijatu atzean, tapatu zuloak () Baina zertsu ari da ankarekin?

AITONA

Joder, clacke dantzatzzen ari dira, es que...

MANU

Tapatu hutsuneak jode .Mantendu baloia, ez du koxka egiten mantendu baloia...Baina ez hartu eskuekin. Ostia, Ume hau tontoa da edo ze kristo!

AITONA

Mister, nere biloba da.

MANU

Eta normala al da?

AITONA

Bai. Baina motibazioa behar du... begira, begira...Segi, segi, hori da, Txuta Mikel, bakarrik zaude.... uyyyyy.

MANU

Uy? Baloia errekaraino bidali du-ta. Zoaz errekarara baloiaren bila, Mikel!!.

AITONA

Ze zorte txarra.

MANU

Mikel! Baloia bilatu! Horrela ikasiko du! Nola ez zarela joango baloia bilatu?

AITONA

Lasai Mr, ni joango naiz.

MANU

Oso ondo badoa aitona.

MARTIN sartuko da.

MARTIN

Keai, Manu?

MANU

Hara! Falta zitzaidana!!! Zer zatoz? Gure taktikak espiatzera?

MARTIN

Ez. Hobeto pentsatu dut, zera, atzo zuk esandakoa.

MANU

Mariskoarena? Ah, debalde lortu ezkerro ez dizu kalterik egiten, ezta?



MARTIN

Ez naiz hortaz ari.

MANU

Zertaz ari zara ba? Martin!!!! Ze ostia nahi dezu??

MARTIN

Igandeko finala. Gau osoan pentsatzen aritu naiz eta arrazoi duzula uste dut.
Atzeratzea izango da onena.

MANU

Igandeko finala atzeratu?

MARTIN

Bai, Manu. Eskola arteko partidua da. Partido xixtrin bat. Gu haurrak hezteko gaude. Kirolaren benetako baloreak erakusteko. Pertsona hobeak izan daitezten. Solidaritatea, adiskidetasuna, talde-lana, ahulari laguntzea, integrazioa, elkarbizitza. Manu, zer ikusten duzu hor aurrean?

MANU

Inutil kuadrilla bat. Ze? Berdin zait kakalarria, itxoin bukatu arte.

MARTIN

Hostia Manu, etorkizuna dira eta gu ez gara inor beraien ametsak zapuzteko. Zure jokalaria horri halako ilusioa egiten badio jokatzek, ba bera ondo jarri arte itxarongo dugu.

MANU

Martin, zer gertatzen?

MARTIN

Neri ezer ere ez.

MANU

Ba orduan igandean jokatuko dugu.

MARTIN

Itxaron, Manu, igandean, juxtu, nire ezkontzako 10. urteurrena da. Pilik hilabeteak daramatza ospakizuna prestatzen. Jatetxera joatekoak gara bazkaltzera. 80 pertsona. Orkestra bat ere kontratatu du. Ameriketatik datoz bere lehengusuak. Ezin diot hutsegin. Mesedez eskatzen dizut.

MANU

Orkestra eta guzti, e? Hasieran esan besterik ez zenuen, Martin. Orain ederki ulertzen dizut.

MARTIN

Jo Manu. Pisu ederra kendu didazu gainetik. Ez nun pentsatzen ulertuko ninduzula. Orduan?

MANU

Orduan bi arazo dituzu, igandeko finala eta ordu berean duzun urteurrena.

MARTIN

Baina nola izan zaitezke hain kabroia?

MANU

Zeuk esan zenuen atzo Martin, partidu xixtrin bat da!! Eta esan nizun damutuko zinela!!

MARTIN

Oraindik ez duzu partida osoa irabazita, Manu.

Badoa MARTIN. Manuk zelaira begiratuko du.

MANU

Nahikoa da, atsedena ta sosal... Soassal, bueno, atsedena ta txarla, gerturatu.

AITONA

Eh Mr, baloia sasietan galdu da.

MANU

*(ekipoari)*Hurbiltzeko hombre, ez naiz hasiko megafoniatik hizketan!.

AITONAK hurbiltzeko keinuak.

MANU

Mutilak, igandean dugu urteko partidurik inportanteena. Aurkariaren gainean nahi zaituztet. () ze arreburrikito? Zuk ez al zenuen kakalarria? Ba zoaz kaka egitera eta eman pakea.

AITONA

Oso grazioso... Es que...

MANU

Aurkariari ez utzi arnasa hartzen () hitzegiteko modu bat da Mattin!!

AITONA

Es que... Metafora bat da...

MANU

Metanfora bat. Eta sarrera gogorra egin behar bada, sarrera gogorra. Eta ez ahaztu; garrantzitsuena ez da irabaztea, edo galtzea, edo parte hartzea...beno parte hartzea bai, ze bestela nekez irabazi daiteke, baina nahiz eta irabazi ez arren edo galdu arren, baizik eta..nola zen? Beno harira!!
Patadon ta todos palante

AITONA

Hori da! (*txaloka*)

MIKEL

Mister!

MANU

Zuk ze behar dezu orain?

MIKEL

Iker ez da sendatuko eta... nik jokatuko dut Igandean?

MANU

Bai, kapitaina, no te jode...

Manu badoa. Mikel aitonarengana hurbilduko da pozik. Manuren esaldiaren bigarren zentzurik ez du harrapatu. Nahi zuen zentzuarekin geratu da.

MIKEL

Aitona! Igandean jokatu det! Kapitaina izango naizela esan dit oraintxe!!

FUNDAMENTITOS

Bieeeeeeeeeeen!! Zure amoank eta nik bota berriak erosiko dizkizugu.

MIKEL

Bieeen!!!

DJ Musika Tienda denda. Arantxa eta Fundamentitos eztabaidan sartuko dira zapatadendan.

ARANTXA

Baina zertarako erosi behar dizkiogu bota berriak Mikeli.

FUNDAMENTITOS

Finalean kapitaina izango delako.

ARANTXA

Finalean ere bankiloan utziko du.

FUNDAMENTITOS

Bankiloan? Arantxa, kapitaina ez da inoiz bankiloan egoten.

DJ Puerta automática. Ate automatikoak irekiko dira.

ARANTXA

Kaixo.

DEPENDIENTEA

Momentu bat

FUNDAMENTITOS

Goazen hemendik.

ARANTXA

Zergatik?

FUNDAMENTITOS

Itxura horrekin honek futbolaz ez daki ezer.

DEPENDIENTEA

Kaixo, zerbaitetan lagundu zaitzakezuet?

ARANTXA

Kaixo, gure bilobarentzat futboleko bota batzuk nahi ditugu.

FUNDAMENTITOS

Realeko botak badazkazue?

DEPENDIENTEA

Realekoak ez.

FUNDAMENTITOS

Goazen hemendik. Honek idearik ez du.

DEPENDIENTEA

Begira, botak ez dira izaten talde zehatz batenak. Marka, modelo gama eta seriearen arabera aukeratzen dira. Nahi izan ez gero nik lagunduko dizuet.

ARANTXA

Bai, mesedez.

DEPENDIENTEA

Botak zer dira, belar naturalerako edo artifizialerako? Hemendik horrea ikusten dituzuen bota guztiak belar naturalean jokatzeko dira, ados? Eta hauek belar artifizialerako. Multitako turf dira.

ARANTXA

Turf? Ez, ez Futbola. Bilobak futbolean jokatzen du.

DEPENDIENTEA

Bai, bai, bai. Zein da desberdintasuna?

FUNDAMENTITOS

Zein da desberdintasuna.

ARANTXA

Utziozu esplikatzen.

DEPENDIENTEA

Duela urte gutxirarte 3 tako klase zeuden SG, FG eta HG. Sgak aluminiozko tako aldagarriak dira, oso aproposak belar biguin eta ezeetarsko, takoa barruraino sartzen baita

Fgak aluminio edo fibrazkoak izaten dira eta gehienetan borobiltxoak, traxion estilokoak. Hau da garai batean gehien erabiltzen zen takoa. Hgak berriz fibra edo gomazkoak izaten dira, eta gehienetan multitakoak, alegia 25 tako txikiko bota

Dj pitido

ARANTXA

Baina guk bilobarentzat botak nahi ditugu.

DEPENDIENTEA

Onena Mgak aukeratzea izango da; sgak, fgak eta hgak betetzen duten funtzio berdina betetzen dute baina tako gehiago dituenez, aproposagoak dira zelai guztietarako

Arantxa eta Fundamentitos buruarekin baietz esango diote tonto batek bezala.

DEPENDIENTEA

Adin honetan garrantzitsua da zer den jakitea. Neutroa, pronador edo supinador...

ARANTXA

Mutila. Mikel, mutila da.

FUNDAMENTITOS

Neri hauek gustatzen zaizkit.

ARANTXA

Baina ez dakigula zer den!! Deitu Begoñari eta galdetu ea Mikel naturala, tuf edo ponedor den.

FUNDAMENTITOS

Utzi telefonoa. Utzi telefonoa.

Telefonoa ateraz

ARANTXA

Eta asko saltzen dituzu?

Fundamentitosek telefonoa markatuko du.

FUNDAMENTITOS

Begoña maitia, aizan... Mikel zer den? ponedor, txupinero edo naturala?...

Bai, mutila, bai...aber... Galdetuion Mikeli...

Arantxa botak ikustera doa eta bat hartzerakoan denak botako ditu. DJ

Botas—caen zap

FUNDAMENTITOS

Bale, eskerrik asko Begoña, maitia...bai, bai...gero deituko diñat...gero, gero...listo.

DEPENDIENTEA

Eta? Zer da?

FUNDAMENTITOS

Spiderman

ARANTXA

Gizon hau tontua da!

DEPENDIENTEA

Neutroak hartuko ditugu. Ze zenbaki behar duzue?

ARANTXA

Ez dakigu.

AITONA

10 urte ditu.



ARANTXA

Barkatu, 11 urte, 11.

FUNDAMETITOS

Ba hamaika urteko haur baten zenbakia izango duela.

ARANTXA

Ze uste duzu hamaika urteko ume guztiak zenbaki berdina dutela?

FUNDAMENTITOS

Utzi telefonoa, telefonoa utzi.

Arantxak bota bat hartuko du eta ateko alarma joko du. DJ Alarma

FUNDAMENTITOS

Begoña, maitia...Mikelek ze zenbaki du?... Ez ez, kamisetan ez oinean...e?...

35...35... Bale,bale gero arte polita.

Eskegi egingo du

FUNDAMENTITOS

35. Listo Arantxa. Konponduta.

ARANTXA

Hori etorri baino lehen galdetu behar zenuen!!

DEPENDIENTEA

Lasai familia. Jetsi ahotsa faborez.

FUNDAMENTITOS

Barkatu. 35.

DEPENDIENTEA

Ze marka?

ARANTXA

Ay por Dios, orain marka?

DEPENDIENTEA

Bai.. Adidas, nike, puma, kapa...

ARANTXA

Hoiek!

AITONA

Multitako turf!

DEPENDIENTEA

Ze kolore?

ARANTXA

E?

DEPENDIENTEA

Laranja edo berde fosforitoa?

FUNDAMENTITOS

Zeintzuk ikusten dira hobeto?

DEPENDIENTEA

Berde fosforitoak

FUNDAMENTITOS

Ba hoiexek. Horrela hobeto ikusiko dute zelaian eta baloi gehiago pasako dizkiote.

ARANTXA

Zenbat da?

DEPENDIENTEA

140 euro

FUNDAMENTITOS

Hala, Arantxa, ordaindu.

ARANTXA

Txartelakin ordaindu daiteke?

DEPENDIENTEA

Ze txartel? Visa, master card, Visa oro, american express...

ARANTXA

Aizu, Jubilatu karnetarekin deskontua egiten al dezute?

DEPENDIENTEA

Ze jubilatatu txartel? Aurre jubilatua, jubilatatu normala...

ARANTXA

Ai ama....

Manu dutxan sartuta dago. Martin ilea orrazten. Mimos. DJ Dutxa

MANU

Uuuuh.... Oooooooooostia...

Alfonek begiratuko dio, oso soinu molestoa egingo du.

MANU

Mekagueeeeen, jodeeeeeeee, aaaaaaaaa....

Alfon gero eta urduriago.

ALFON

BALEEEEE, NAHIKOA DA !!!!!! Dutxa beroa ireki!

MANU

Dutxa hotzak ilea sendotzen duela esaten dute.

ALFON

Manu, zuri ez zaizu ilea haziko.

MANU

Urduri nago, urduri eta horrek ez dio mesederik egiten ileari. Martin hori neri irabazteagatik kapaza da emaztea galtzeko. Dios, Iker berreskuratzen ez badut alperrik.

ALFON

Ba, ez baduzu nahi partida galtzera arriskatu, partidua atzeratu.

MANU

Ni por el forro. Nik ez dut inoiz sasi jakintsu handiuste horrek eskatutako ezer egingo.

Manu dutxara sartuko da berriro. Alfonek bere ariketekin jarraituko du.

MANU

Aaaaaaaaa..... Jodeeeeeeeee....

Taxista sartuko da.

ALFON

Hombreeeee, etorri da gure Romeo!

MANU

Me kagueeeeeeeeen....

ERRUBEN (*Alfoni*)

Zer? Dutxa hotza hartzen berriz?

ALFON

Bai.

ERRUBEN (*Manuri*)

Manu! Zure alopeziak ez daukala erremediorik!

MANU

Zure aurpegiak ezta ere. Gelditu al zara interneteko neska horrekin?

ERRUBEN

Bai.

ALFON

Eta? Informe bat nahi dut nire mahaia ganean. Con pelitos y señales, jo,jo,jo....

ERRUBEN

Ba ez e, ni pelitos ni señales.

MANU

Zer zegoen guztiz depilatua?

ERRUBEN

Ez. Beno ez dakit?

MANU

Ze, beldurrez etxean gelditu al zara?

ALFON

Akojonaaauuuuu!!!!

ERRUBEN

Ke ba, ez da hori. Neska azaldu da. Oso maja eta oso guapa, por cierto.

ALFON

Eta?

MANU

Ez esan. Badakit. Zu ikusi eta ertzaintzari deitu dio.

ERRUBEN

Ez. Nirekin egon nahi zuen, mezuan jarri zidan bezala.

MANU

Joder! Orduan, zer?

ERRUBEN

Nirekin egon nahi zuen kosmetikoak saltzeko.

ALFON

Jodo....

MANU

Besterik ez?

ERRUBEN

Ez, bueno bai. Berriro gelditu gara. Hori da onena.

MANU

Berriro? Afaltzera joateko? Hobeto ezagutzeko?

ERRUBEN

Hortarako ere bai, baina batipat erosi dizkiodan kremek efekturik egin ote didaten ziurtatzeko.

BIAK

Zeeee???

ERRUBEN

Bai, komentatu didanez, gizonok ere adin batetik aurrera gure larruazala zaintzen hasi behar genuke, hildako zelulak kendu eta biziberritzeko.

MANU

Zenbat krema erosi dizkiozu?

ERRUBEN

Pare bat.

ALFON

Pare bat? Esan egia.

ERRUBEN

Sei guztira: bat, egunekoa, babes eta guzi, bestea zimurren aurkakoa, hirugarrena gauetarako... Baina ez dago gaizki, ligatzeko beste taktika bat da: nik kremak erosten dizkiot eta berak...

MANU

Eta berak komisia eramatzen du salmenta bakoitzeko! Zu boboa zara!

BIAK (*adarra jotzen*)

B000000B000000...B00000B000000000....

ERRUBEN

Zer ote dakizue zuek? Harreman polit bat hasteko aukera da.



ALFON

Harremana ez dakit, baina Euskal Herriko kutisik zainduena duen taxista izango zara!

ERRUBEN

Bale, ados. Kremak erosi nizkion berarekin txortan egiteko. Ni oraindik birjina naiz.

ALFON

Zer diozu?

ERRUBEN

Egia.

ALFON

BOOOOOOB000000...BOOOOOB000000000....

MANU

Bale Alfon, utzi zazu pakean. Erruben, txortan egin nahi baduzu, segi pesak egitera. Tripa hori jetsi behar duzu derrigor.

ERRUBEN

Gaur ez ditut egingo. Taxisa tope daukat. Bi bezero Burlatako brujoarengana eraman behar ditut.

ALFON

Burlatako petrikilloa? Baina inor joaten al da oraindik petrikillo horrengana?

ERRUBEN

Nik astero eramaten ditut sei edo zazpi lagun. Oso ona omen da: nere koñatuak esan zidan bere lehengusu bat txeposua zela. Petrikiloak apo batekin igurtzi zion eta desagertu egin zen.

ALFON

Lehengusua?

ERRUBEN

Ez. Txepa.

MANU berpiztu egingo da, tranzean bezela.

MANU

OSTIA!!!! Nongoa esan duzu dela brujo hori??

ERRUBEN

Burlatakoa, apoekin egiten du lan. Oso ona.

DJ Kotxe pasando. IKER eta AITA TAFALLAKO BRUJOAREN kontsultan sartuko dira. BRUJOA eserita itxaroten egongo da. AITA telefonoz.

AITA

Marisa, ya te dije que teníamos que haber comprado otro coche...nos ha dejao tirados en Pamplona...Hasta Burlada he tenido que venir, si. Me ha dicho el entrenador del chaval que hay un brujo muy bueno, que a un amigo de su cuñado le arreglo las cervicales con un sapo...Marisa...Marisa

DJ Coche pasando. Eszenatik deasgertuko dira eta urmael batera iritsiko dira.

DJ sapos. Bertan txabola bat dago. Barrura sartuko dira baina ez dute inor topatuko. Kanpoan daudenean Iker enbor batean eseriko da. Orduan bere aitaren atzean norbit dagoela ikusiko du.

IKER

Aita...

Brujoa, aitaren atzean dagoela seinalatuko dio.

AITA

Buenas noches es usted el sr brujo, kurandero...

PETRIKILOA

Bai. Ni naiz.

AITA

Hara, euskalduna. Begira nik egia esango dizut. Ez naiz batere txorakeri hauen aldekoa. Mutikoak esginzea dauka eta sendatzea etorri gea.

PETRIKILOA

Chist.

Berriro begira. AITA urdurituko da.

AITA

Zer?

BRUJOA begietara begira AITARI.

AITA

Zertan ari zara?

PETRIKILOA

Giltzurrenean harriak dituzu.

Begietara begira

PETRIKILOA

Elikadura oso txarra daramazulako da hori.

AITA

E?

PETRIKILOA

Eta besikula ere zisko eginda daukazu.

AITA

Aizu hemen gaixo dagoena mutikoa da ez ni.

PETRIKILOA

Chissss. Gauetan egarri askorekin esnatzen zara?

AITA

Ze egarri eta ze kristo!!

PETRIKILOA

Elikadura txarra, jenio txarra eta ondorioz osasun txarra.

IKER

Dena asmatzen ari da aita!

AITA

Zu ixo!!!! Emaiozu umeari txonkatileko esgintzea sendatzeko belarren bat.

PETRIKILOA

Nahi duzun bezela.

(Haurrari begiratuko dio)

PETRIKILOA

Listo!! Esgintze simple bat da. Ezerren beharrik ez dauka. Bi aste reposoan eduki eta sendatuko zaio.

Jutearen imintzioa egiten du.

AITA

Reposo????????? Baina zuek ez dakizute beste ezer esaten edo ze kristo!!!
Igandean finala jokatu behar duela! Horiek al dira zure botere majikoak? Ez al zenuen txeposo bat sendatu? Igurtziozu txorkatila apo horrekin!!!

IKER

Ez, hori ez, hobeto nago.

Aita eta semea irteerara doaz. DJ Sapo Petrikiloa apoa jan egingo du.

PETRIKILO

Afaltzera geratu nahi?

AITA

Ez.

PETRIKILO

50 euro dira.

Jaiki eta badoaz

*DJ Tv. Martin eta bere 2 lagunak tabernan. Sota sale de la barra y cambia de canal. **DJ Partido***

MARTIN

Emerjentzia haundi bat dudalako deitu dizuet.

DANI

Ikeako beste lanpara bat?

MARTIN

Ez, ez, partidua.

JOSE

Manurekin hitz egin duzu?

MARTIN

Haundiuste potrohaundi horrekin ezin da hitz egin. Egia esan diot eta barre egin dit aurpegira!!

JOSE

Bueno, beti bezela orduan.

MARTIN

Baina oraingoan irabazi egingo diot! Irabazi dezaket!! Oraingoan bai. Eta Manuri aurpegiratu mundu guztiaren aurrean...

DANI

Eta Pili?

MARTIN

Hoixe da ba arazoa

JOSE

Pilirekin hitzegin duzu?

MARTIN

Bai

DANI

Bai?

MARTIN

Bueno...hitzegin-hitzegin...

JOSE

Ez duzu hitzegin

MARTIN

Ez dut hitzegin!! Zuk ba al dakizu nola jarriko den??! Pasa den urtean urtehurrena ahaztu egin zitzaidan eta bi astetan sofan lo egin behar izan nuen.

JOSE

Non, lkean bertan?

DANI

Gezurra esan behar diozu.

JOSE

Bai, eta enteratzen bada, sofara ez, amaren etxera bidaliko du bizitzera betirako

DANI

Denok dakigu Piliri Futbolaren kontu hauek ez zaizkiola batere gustatzen. Partiduak ezkutuan ikusi behar izaten ditugu, joer! Egia esan ezkerro, dibortzioa eskatuko dizu.

JOSE

Merezi dizu? Partidu hori irabazteak hainbeste suposatzen du, Martin?

MARTIN

Oraingoan bai. Potroak puztu puztu eginda dauzkat beti galtzaile izatearekin!!

DANI

Ba orduan gezurra esaiozu. Edo erdi gezurra. Lanean turnoa jarri dizutela edo ama hospitalean dagoela edo...

MARTIN

Bai ta nola dagoen galdetzeko deitzen dionean zer? Hori da asmatu dezakezun gezurrik borobilena?? Joer Dani...!!

JOSE

Eta zer esan duzu oraintxe?? Potrotaraino zaudela beti galtzaile izateaz!! Adorea behingoz Martin! Esaiozu egia!! Emakumeek hitz egitea eskertzen dute, zure sentimenduak agertzea...

DANI

Bai, umemoko batzuk lokatzetan korrika ikustea nahiago duela esateak, asko xamurtuko du Pili, seguru!

JOSE

Gezurretan harrapatzen badu, ez dio sekula barkatuko!!

DANI

Ez dauka harrapatu beharrik!! Hor dago gezurtien artea!! Gezurrak egia baino hobe izan behar du!! Una mentira bien puesta mucho vale y poco cuesta.

JOSE

Ez, esan egia Martin, hartu telefonua eta deitu. Egin aurre bizitzari behingoz.

MARTIN

Zuei deitu baino "kara o kruz" egin izan banu askoz hobe..

JOSE

"Kara o kruz" egindakoan beti zelaiaren alde lokaztua tokatzen zaizu. Hartu telefonoa eta deitu. Egin kasu!!

DANI

Zuri? 45 urte dauzkazu, solteroa zara eta amarekin bizi zara. Jakin daiteke zure estrategia hoiek noiz funtzionatu dizuten ondo??

MARTIN

No se hable mas. Erabaki dut.

JOSE

Egia?

DANI

Gezurra?

MARTIN

Ateratzen dena!! Ezin dut gehiago pisu honekin!!



MARTINEk telefonoa hartuko du.

MARTIN

Pili! Kari...zer moduz...bai esan diazu lanera ez deitzeko urjentea ez bada... itxaron, urjentea da...gauzatxo bat... igandean hurren futboleko finala dut. Bai, Igande hontan. Bai, badakit. Baina konpondu dezakegu ez? Urtehurrena beste egun batean, lasaiago, biok, goxo goxo ospatzen badugu zer? Zer irudi *(moztuko du)*

MARTIN

Moztu egin da.

JOSE

Ez, moztu egin du. Eta ez da moztuko dizun gauza bakara

DJ Juicio. Buelta epaitegira. Martin egongo da epailearen aurrean.

MARTIN

...moztu egin zidan. Eta etxera joan nintzenean maleta sarreran neukan. Joateko eskatu zidan. Pelota baten atzetik ibiltzen ziren tximuei begiratzea gustoko banuen beraiekin joateko lo egitera. Eta ordutik amaren etxean nago berriz. Zergatik? Ba gustatu egiten zaidalako pelota horren atzetik tximinoen moduan ibiltzea. Asko ez ikaragarri! Eta goizetan jaikitakoan barrabilak harraskatzea!! Eta ohean puzkarrak botatzea!!! Eta bai, kalean neska gazteei erretenera begiratzen diet batzutan, eta emazteak hitz egiten didanean baietz esan baino askotan ez diot entzuten esandakoa!!!! Eta igandeko partidu puta hori jokatu nahi nuen!!!! Eta irabazi!! Behingoz garaipena zer den jakitea!!! Joer... Barkatu, eske nik maite det baina batzutan... badago ur pixkat? *(norbaitek emango dio)* Bai, eskerrik asko...

Martin ura erateko imintzioa egingo du...eta Alfon bihurtuko da gimnasioan. Aldamenean Manu izango du lehen utzi dugun postura berdinean pesak egiten.

DJ Gimnasio

ALFON

Joder txabal, eztakit nola aguatatzen dezun hainbeste denbora

MANU

Urduri nago. Ikerren aitak ez du deitzen ta urduri nago.

ALFON

Burlatako rotondan bueltaka ibiliko da, galduta.

MANU

Txepak arreglatzen baditu esginze xixtrin batekin asmatuko du, ez?

ALFON

Txepak sartzen dituen horko tabernako betiko moxkor hori da. No, calla tu!!

MANU

Txapak, ez txepak!!!!

ALFON

E?

MANU

Hala uztagun. Bimila ta hamar, bimila ta hamaika...

ALFON

Komunera noa...

Badoa. Ikerren aita sartuko da gimnasia.

AITA (*telefonoz emaztearekin hizketan beti bezala*)

Q siiiii, q me han dicho que siempre esta aqui!! Tu recoge al niño de solfeo y llevatelo a casa. Y que repose, que repose todo el rato. Manu!

MANU

Honbre, azkenean!

AITA

Jakin liteke nora hostia bidali gaituzun?

MANU

Ze ba?

AITA

Ze ba? Matasanos horrek eztiolako ezer egin!! Alper alperrik joan naiz Burlataraino!

MANU (*pesak altxatzen jarraituko du*)

Joder... bimila eta ehun...

AITA

Hori, bai, kobratu azkar asko!!!! Porzierto, 50 euro zor dizkidazu.

MANU

Ta orain zer egin behar dugu?

AITA

Ba hasieratik egin behar genuena. JoxeMariri deitu ta pastillan batzuk eskatu. Hark jakiten du holakotan zer egin.

MANU

Zer da medikua?

AITA

Ez harakina. Baina Idi probatan ibiltzen da.

MANU

Idi probatan? Hori ez al da ilegala.

AITA

Ilegala? Manu, entzun ondo, bizitza hontan bi pertsona klase daude. Ezkerreko karriletik gidatzen dutenak eta eskubikotik joaten direnak. Eskubiko bidea dordoken bidea da, galtzaileena. Ezkerrekoa ordea, herbiena, lekutara azkar iristen direnak. Irabazleena. Manu, zu zer zea, herbia ala dordoka?

MANU

Eta Ingoterran ez al dira aldrebes ibiltzen?

AITA

Manu, herbia ala dordoka? Pentsatu...Bizitzan argi izan behar da zein den hartu behar den bidea.

Aita badoa baina sartu den leku desberdin batetik.

MANU

Hori komuna da.

Aita joan egingo da. Alfon komunetik irtengo da

MANU

Zuk zer uste duzu naizela herbia ala dordoka?

ALFON

Zu? (*pentsatzen egongo da*) Igeltseroa.

DJ Musika Partiduko eguna iritsi da. Futbol zelaiko soinua entzungo dugu. Manu alde batetik bestera ibiltzen ariko da, urduri. Martin sartuko da bere ondora eskua ematera. Partidua hastera doa.

MARTIN

Gaur betiko zortea baino gehiago beharko dezue irabazteko. Onena etxean geratu zaizula ematen du! Ja!!

MANU

Ez zaitetz hainbeste poztu! Iker azalduko da azkenean. Benga mutilak, berotu adulteroak..

MARTIN

Benga benga mutilak, konzentratu konzentrazioa ba! Antxon, zatoz, gauza bat!

Martin zelaira doa. Manu, bakarrik geratuko da.

MANU

Mutilak, benga, berotu. Adulteroak. Nun hostia sartu da mutil hau!!!

Manu urduri bere zelai zatian. Fundamentitos eta Mikel sartuko dira.

FUNDAMENTITOS

Hemen gaude. Autobusa ez zen etortzen eta kapitainik gabe ezin da hasi!!

MIKEL

Nun dago brazalettea mister?

MANU

Brazalettea? Ze brazelete?

FUNDAMENTITOS

Kapitainarena! Mikeli esan zenion kapitain izango zela gaur, ez zara gogoratzen?

MANU

Nik?

MIKEL

Bai.

FUNDAMENTITOS

Bota berriak erosi dizkiogu.

Erakutsiko dizkiote.

MIKEL

Multitako turf.

FUNDAMENTITOS

140 euro. Baina berdin da. Zer da dirua halako momentu batekin konparatuta!

MANU

Ya, baina Mikel gaur ezin da kapitain...

FUNDAMENTITOS

Jan gabe ere egongo nitzake haur honen aurpegia ikusteagatik. Gau osoan ez du lorik egin.

MANU

A, ez?

FUNDAMENTITOS

Bere bizitza osoan gogoratuko du. Final batean kapitain jokatu nuen esango die bere seme alabei eta harro sentituko dira.

MANU

Mikel, segi zelaira. Urko emaiozu brazaletea Mikeli...Emateko hostia.

Mikel zelaira joango da.

FUNDAMENTITOS

Es que...!! Porteria atzera noa baloia sasiatarra botatzen badute berreskuratzeko.

Ezkerretik aterako da.

MANU

Mikel, zatoz.

Mikel sartuko da

MANU

Esan kara o kruz!! (...) Ondo. Orain erabaki zelaia. (...) Ezkerra?? Baino ume hau tontua da?? (...) Bale, bale. Ezkerra. Benga mutilak gogor. Patadon eta aurrera.

Aita etorriko da.

AITA (*telefonoz hizketan beti bezala*)

Que si! Que ya hemos llegado. Noooooo, esta bien, vamos a ganar la final, luego te llamo. (*eskegiko du*) Ya esta! Iritsi gea.

MANU

Bazen garaia! Iker zoaz barrura. Ta ze, azkenean...?

Aita keinua eta mugido.

MANU

Zenbat pastila eman dizkiozue?

AITA

Hori gutxienekoa da. Irabaztearren edozer gauza.

MANU

Mikel bankilora! Nola ezetz?!

AITA

Baina ume hori normala al da?



MANU

Ez, oso normala ez da. Mikel etortzeko honea, hostias!

AITA

Ojeadoreen bila noa.

Aita aterako da Mikel agertzen den momentuan.

MIKEL

Zer?

MANU

Hala, eseri bankiloan.

Mikel badoa bankilora.

MIKEL

Baina gaur jokatu egingo nuela esan zenidan...

MANU

Ez. Kapitain izango zinela esan nizun.

Arbitroa dator

ARBITROA

Aizu aizu ez da reglamentario. Kapitaina bankiloan ez, zelaian.

MANU

Mikel, ekarri brazalettea. Iker! Jantzi brazalettea!

MIKEL

Aitona, patata zorro bat erosiko?

Mikel badoa

MANU

Iker, jantzi brazalettea eta utzi alperrik korrika egiteari oraindik ez gara hasi eta.

Arbitroa sartuko da bien erdira. Serio. Euskaldun berria izango da.

ARBITROA

Nere lehenengo partida da. Hasi aurretik bat gauza pentxatxen dut esan behar dala. Kanpozelai nahi dut joku garbi. Kirol garbi. Eskolako mutil dira jokatzeko. Minimora, entxun, minimora, hasiko naiz txartelak repartitzen. Eta dakizue orain tarjeta beltza ere dagoela, publikoarentzat. Gaizki portatutxeko bada gende aterako dut. Mesedez eskatzen dut amenazak eta insultoak ez, argi?

BIAK

Argi.

ARBITROA

Ea ba, zorte ona oparitzen dizuet biek.

Arbitroak bere txilibitua joko du partidari hasiera emanaz. Bi entrenatzaileak euren taldeak zuzenduko dituzte era guztietako keinuak eginez. Musika bukatzean, baloia Ikerrek dauka.

MANU

Benga Iker, hori da, hori da, eutsi, segi Iker, segi... Orain topera!!

DJ hezur autsia

MANU

Hostia!!

MARTIN

Hauxe da gurea Antton. Segi ez dala ezer izan.

MANU

Hau ilegala da. Arbitro, gelditu jokoa!! Baina nola jarraitzeko??!!

MARTIN

Oso ondo arbitro. Hori da, bakarrik egin du...segi Antton...

MANU

Kaguen la puta!! Jose Osbaldo, ez dadila pasa, ez dadila pasa...

MARTIN

Peiori pasa...Hori da. Txuta Peio, txuta!

Pausa

MARTIN

Gooooooooooooool!!!

Arbitroa sartuko da

ARBITROA

9 zenbakiaren tobilloa 7 bat ematen du.

MANU

7 bat zure aurpegia emango du!!

Arbitroa badoa

MARTIN

Hori gauzak gaizki egiteagatik gertatzen zaizue!!Ja!!! Bat eta huts.

MANU

Ixildu zaitez, Martin!!

MARTIN

Benga benga mutilak, hauxe da ta gurea. Antton! Antton!!

Martin ezkerreko aldetik desagertuko da.

MANU (*bankillora builaka*)

Mikel!!!! Mikel!!!!

Mikel sartuko da korrika zerbait edaten, aitonak erosi dion fanta.

MIKEL

Zer?

MANU

Baina utzi patatak jateari!! Eta berotu jokatzera zoaz ta.

MIKEL

Benetan?

MANU

Benga berotu gabe, ez dago ta astirik, hostias!!! Arbitro, kanbio!!

ARBITROA

Senbakia? Takoak?

MIKEL

Multitako turf!!

MANU

Mikel ez ahaztu, patadon eta gora.

MIKEL

Gora?

MANU

Jode, aurrera.

Badoa

MANU

Mikel!!

Sartuko da

MIKEL

Zer?

MANU

Baina ez etorri...entzun, baloia pasa dadila baina jokalaria ez.

MARTIN

Tapatu zuloak!!! Tapatu hor... Iriarte, zer egin duzu?! Hori beste taldekoa da!!

MANU

Eman Mikel, defentsarekin bakarrik zaude! Txuta, txuta, eman, eman!!!

Aaaaaah, entzungo da.

MANU

A ze hostia!

MARTIN

Baina zein da astazakil hori?!! Baina zuek ze animalia klase zarete!!!

MANU

Bueno, bueno, ezta hola jartzeko. Sarrera egin dio, bai. Baina altxako da eta kito.

MARTIN

Arbitro, ROJA!!!! Hori tarjeta roja da!!!! Oso ondo!!!

MANU

Ze roja ta ze roja ondo!!...Martin ze oparitu diozu honi oraingoan.

MARTIN

Tira Manu, ez pikatu. Falta izan da.

MANU

Ze putaseme klase zara zu?!

Manu zelaira doa arbitroaren bila. Arbitroa korrika sartuko da. Martinen atzean jarriko da Manuk jipoitu ez dezan.

MARTIN

E!! E!! Manu, pasa Gabe, e?! Ze ejenplu klase ematen ari zara mutilei!!!

MARTIN

Ez dakizu futbolean, beti berdin, ezin duzunean irabazi besteak lesionatzera!!! Hori ROJA DIRECTA da.

MANU

Hasi gea, hola irabazi nahi duzu, ezta? Bestela ezin duzu ta, gixaixua!!

MARTIN

Ni gixaixua? Ta zu? Animala alena?? Umeei hostikoak ematen baino ez diezu erakusten!!!!Hori ez da futbola!!

MANU

Zuk egiten duzuna bai eztala futbola!!! Zergatik ez dituzu balletean edo antzerkian apuntatzen zureak!!! Han behintzat lurrera eroritakoan grazia egingo dute, hemen pena eman besterik ez duzute egiten. Beti kexuka. Lau urteko neskatilak ematen duzue!!

MARTIN

Han, atera da GIZONA!!!

MANU

Zer dezu zuk orain gizonen kontra???

MARTIN

Egunen batean lehertu egingo zea, gimnasioan giharrak hainbeste puztuta. Eta (*burua seinalatuz*) hemen barruan?? Kaixo? Ba al da inor hor??

ARBITROA

Tranquilizatxen biok mesedes! Ari sarete ematen ejemplo oso txarra.

MANU

Igual zure emazteari galdetu zer nahiago duen, zure buru hori edo hemengo burua (*hankarteari eutsiko dio*)!!! A ez!!!! Ezin diozu galdetu!!! Beste norbaitekin egongo da ta txortan anibersarioa zecelebratzen!!!

ARBITROA

Da egia hori?

MARTIN

Mekauen la puta Manu, zure adineko guzien artean zu zara tontoena!

ARBITROA

Nahiko. Utzi ya.

MANU

Tontoena ni? Dioo.... Nahiago tontoa izan zure emazte sorgin horren menpean bizi baino! Koldarra! Sukaldero! Sekula ez dezu potroik izan eta ez dituzu izango!

MARTIN

Zer?

Martinek behatza sartuko dio begian

MANU

Sera cabrón! Behatza sartu dit!!!!

Manuk puñetazo bat emango dio. Eta borrokan hasiko dira.

MARTIN

Arbitro! Arbitro!!! Jo egin nau.! Agresion!

ARBITROA

Bueno nahikoa! (*kuaderno bat aterako du*) Partido hau bertan behera ustea erabakitzen dut!

MANU

Nola bertan behera?

ARBITROA

Oraintxe bertan!

MARTIN

Ezin duzu holakorik egin! Irabazten noa!!

ARBITROA

SUSPENDIDO!

MARTIN ETA MANU

SUSPENDIDO?

*Biek arbitroa joko dute edo gainera botako dira. Iluna. **DJ Garraxiak** aldaketa egina dagoenenan **Dj juicio**. Argia piztuko da berriro. Epaketan egongo garafiskalak bere konklusioa esango du.*

MARTIN

Señoria nik ez nuen arbitroa jo. Bere buruak nere oinaren kontra txoke egin zuen. Manu izan zen muturrekoa eman ziona.

MANU

Protesto, señoia! Nik ez nion inorri ezer eman. (pausa) ¿Zer? ¿ezin dudala protestarik egin? Ez da egia esaten ari eta egia ez badu esaten, egia falta da eta orduan falta da. Ezta?

MARTIN

Baina ze falta ta falta ondo?! Falta zure mutikoak egin zuena.

MANU

Protesto!

MARTIN

Nik protesto gehio!

MANU

Hor dago protestari!

MARTIN

Baina zer diozu? Señoia, tarjeta ateraiozu!

MANU

Hara Martin, ez zaitetz horrela jarri. Biok dakigu zelaian gertatzen dena zelaian geratzen dela, ezta? (Martinek baieztatzen du) Señoia, zin egiten dizut hurrengoan kalean elkar ikusten dugunean ez dela ezer gertatuko.

MARTIN

Hortan arrazoia du señoia, ez da ezer gertatuko. Pentsa, nik ez dut agurtu ere egingo.

MANU

Ikusten. Gurea norgehiagoka sana da.

MARTIN

Señoia, ez zegoen inolako arrazoirik partida bertan behera uzteko.

MANU

Horixe. Futbola horrelakoa da...zer? Ze katu?

MARTIN

Bukatu. Bukatu dugula esaten du.

FISKALA

Eskerrik asko, señoia.

Denok dakigu futbola haundia eta miresgarria dela. Futbolari esker ikasten dugu talde lanaren garrantzia, ausardia eta umildadearen arteko oreka, galtzen... Ikaragarria da nolako pasioa pizten duen, eta aldi berean ze frustazio sortu ditzaken.

Gaurkoa horren lekuko da. Argi geratu da futbolari frustratuek, izan entrenatzaile, guraso edo zaleek, eragin dezaketen kaltea.

Eredu izan behar luketenek arbitroari, nire defendatuari, bekainean sei puntu, eta arbitratzeko betirako beldurra eragin diote, eta 'futbola horrelakoa da' xingle batekin laburtuko dizute gertatutakoa. Normala balitz bezala. Baina señoia, hori ez da normala.

Señoia, gaur zu zara arbitro: zuri dagokizu hemen ikusi eta entzundakoaren arabera, gertatutakoa epaitzea. Zuk erabaki behar duzu pertsona hauek jolasten jarraituko duten edo jokoz kanpo geratuko diren. Señoia, Zein da erabakia?

DJ Juicio. Final

FITXA ARTISTIKOA

JOKOZ KANPO/ FUERA DE JUEGO

HIZKUNTZA: Euskara/ Gaztelera

IRAUPENA: 75 minutu

EGILEAK: Mikel Pagadizabal, Nagore Aranburu eta Anartz Zuazua

KUSLEAK: Helduak

AKTOREAK: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota

MUSIKA: Ignacio Perez Marin

JANTZIAK: Nagore Dendariarena


ESZENOGRAFIA: Josean Perez eta Iñaki Iriondo

ARGIAK: Carlos Salaberri

ZUZENDARIA: Anartz Zuazua



JOKOZ KANPO



HARREMANA:

NAFARROAN:

BELEN ALVAREZ b.alvarez@quieroteatro.com

GAINERAKO LEKUAK:

ALBERTO MUYO alberto-muyo@telefonica.net